

## **DIRU ITURRIAK**

Normalean paintball enpresetan kolorezko bala kantitatearen arabera ordaintzen da. Baina gure enpresak beste metodo batzutan nahi dugu oinarritu prezio bat jartzeko gure bezeroei.

Eszenatoki bakoitzak bere zailtasun maila desberdina izango du eta beraz, prezioak mailaren arabera izango dira. Eszenatokiek prezio desberdina izateaz gain, eszenatokiari gauzak gehitzeak (kareta bat, trintxerak etab.) prezioaren igoera bat ekarriko du, eta eszenatokiari objektuak kentzeak berriz hasierako prezioari zerbait bajatuko dio. Gure enpresak eskaintzen dituen ikastaroak prezioaren barruan sartzen dira. Ongi jakitzeak jolasten garrantzitsua dela uste dugu horrela beraien disfrutea lortzea errasagoa izango da eta beraien itzulera lortuko dugu.

Negozioaren hasieran, eszenatokitatik lortutako sarrerak izango ziren irabazi-iturri nagusiak, baina beranduago, catering bat edota parking-ean ere dirua irabazi ahalko genuke.

Gure enpresa bidaia agentzia eta interneten iragarriko denez deskontuak jarriko ditugu. Bidaia agentzietatik datozen bezeroak normalean familiak izaten dira oportetan etortzen direnak eta horiek egunak aktibitatez beteta edukitzen dute. Beraien aktibitateen planifikazioan gure enpresa hautatzen badute deskontu bat aplikatuko zaie internetez hartuko dutena baino, Mutriku herriarekin lotuta egotearren oportren planifikazioa deskontua handiagoa izango da.

